



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Aurtengo hau aza jendearen urtea izendatu dutela baliatuz, azapologia egiten jarraituko dut. Europako kostalde osoan, mediterranearen eremuan eta Asian topa daitezke aza jendearen arbaso basak. Milaka urte daramatzagu aza horietatik jaten. Jan aurretik, agidanean, botika gisa erabiltzen ziren, gorrieria, beherakoa eta buruko mina osatzeko. Jateko etxekotu, landu eta hobetutako aldaeren artean, mota askotako azata-rrak bereizi ditugu, kultura askotan garrantzi handikoak, baratze eta soroetan etengabeko aukeraketa eginez.

Brassica generoak biltzen ditu azata-rrak. *Brassica* hitzak, latinez, “aza” esan nahi du; guretzat, alabaina, genero horretako guztiak ez dira azak. Botanikarien artean ere zikulu-saltsa ederra dago sailkatze eta izendatze lanetan... Saltsan edo gabe guk jaten jarraituko dugu, gustura asko! Jaten diogun atalaren arabera, aukeraketa eginez sortu dira aldaerak: sustraigatik eta zortenagatik bereizi ditugunak (errefau-aza *Brassica oleracea* var. *gongylodes*, arbi-aza *Brassica napus* subsp. *rapifera* eta arbia *Brassica rapa* var. *rapa*), hostoa nagusi dutenak (galego aza *Brassica oleracea* var. *longata*, kalea *Brassica oleracea* var. *acephala*, aza txinatarrak *Brassica rapa* var. *chinensis*, mizuna japoniarra *Brassica juncea* var. *japonica* eta aza kizkurra *Brassica oleracea* var. *sabellica*), loreagatik hautatutakoak (azalorea *Brassica oleracea* var. *botrytis*, brokolioa *Brassica oleracea* var. *italyca* eta romaneskua *Brassica oleracea* convar. *botrytis* var. *botrytis*), ernamuinak hobetsi dizkiegunak (brusela aza *Brassica oleracea* var. *gemmifera*, aza *Brassica oleracea* var. *capitata*, lonbarda *Brassica oleracea* convar. *capitata* var. *rubra*) eta haziaren bila aukeratu ditugunak bai jateko (ziapetak, Indiako *Brassica juncea*, beltza *Brassica nigra* eta Etiopiako



JAKOBA ERREKONDO

Goiko argazkian, azak. Horixe esan nahi latinezko ‘*Brassica*’ hitzak: aza. Izen bereko generoaren barruan badira bestelakoak ordea. Esaterako, eskuineko argazkian ageri den brokolioa (*Brassica oleracea* var. *italyca*).



FOREST & KIM STARR-CC BY

Brassica carinata) eta bai oliotarako ere (koltza *Brassica napus*). Era berean, ez dauzkagu ipularrean uzteko beste genero batzuetako bestengusu dituzten erre-fautxoak (*Raphanus raphanistrum* subsp. *sativus*) eta *Sinapis alba* ziapetik zuriak ere... Horiek ere janez aukeratu eta bereiziak eta geure bizitza hobetu dutenak.

Konfuziok, duela 2.495 urte hil aurretik, ehunka olerki eta abesti idatzi zituen garai hartako bizimodua azalduz. Nekazaritza aipagai du, baita orduko berrogeitaka jaki ere; tartean, aza. Gaur egun gai horiei buruz, azaburuz-eta, idatziko luketen letragileak beharres-ten ditut. ■